

MUk eta COPITIG-ek egokitzapen kurtsoen edizio berri bat abiarazten dute

2013/07/24

Urrian hasiko dira berriro honako ingeniaritza arloetako egokitze ikastaroak: Mekanika, Industria Elektronika, Informatika, Telekomunikazio Sistemak eta Industria Diseinua eta Produktu Garapena. Ikastaro hauen bidez, ingeniaritza teknikoak dagokion Graduko titulua lortuko dute.

Mekanika Ingeniaritza edo Industria Elektronika Ingeniaritzako Egokitze Ikastaroak.

Mekanikako eta elektronikako ingeniaritza teknikoei zuzenduta daude. Ikastaroak azarotik uztailera arte iraungo du. On Line formatuan egingo da, eta zalantzak argitzeko aurrez aurreko 6 saio izango dira (Gipuzkoako Peritu eta Ingeniaritza Tekniko Industrialen Elkargo Ofizialean).

Ikastaroa bukatzean, ikasleek gradu amaierako lana egin beharko dute.

<http://www.mondragon.edu/muplus/manufacturing/procesos-de-fabricacion/curso-de-adaptacion-online-de-ingeneria-tecnica-en-mecanica-a-grado/>

<http://www.mondragon.edu/muplus/electronica-y-tics/electronica/curso-de-adaptacion-online-de-ingeneria-tecnica-en-electronica-industrial-a-grado/>

Informatikako, Telekomunikazio Sistemetako, eta Industria Diseinua eta Produktu Garapeneko Ingeniaritzaren Egokitze Ikastaroa.

Hiru ikastaro hauetan informatikako eta sistemen informatikako, telekomunikazioetako eta industria diseinuko ingeniaritza teknikoei zuzenduta daude. Ikastaroa azaroan hasi eta uztailean bukatuko da, eta eskolak izango dira ostiral arratsaldetan, gaztelaniaz (eredu erdi presentziala). Ikastaroa bukatzean, ikasleek gradu amaierako lana egin beharko dute.

<http://www.mondragon.edu/muplus/electronica-y-tics/tics/adaptacion-grado-en-ingeneria-informatica/>

<http://www.mondragon.edu/muplus/electronica-y-tics/tics/curso-de-adaptacion-ingeneria-tecnica-en-sistemas-de-telecomunicacion-a-grado/>

<http://www.mondragon.edu/muplus/manufacturing/diseno-y-desarrollo-de Producto/curso-de-adaptacion-a-grado-en-ingeneria-en-diseno-industrial-y-desarrollo-de-producto-1/>

Industria Antolakuntzako Egokitze Ikastaroa

Ikastaro hau industria-mekanikako, industria-elektronikako, industria-elektrizitateko eta industria-kimikako ingeniaritza teknikoei zuzenduta dago; honez gain, baita industria ingeniaritza teknikoei ere. Ikastaroa osoki On Line bidez egingo da, plataforma birtual bat erabilita. Ikasleei aholkua emateko aurrez aurreko saio batzuk izango dira. Ikastaroa ikasleen beharrizanetara egokituko da eta hiru erritmotan egiteko aukera izango dute: urte bakar batean (full-time), bi urtetan (part time) edo hiru urtetan (10 ETC/Lau hilabetean). Ikastaroa urrian hasiko da.

Ikastaro honen bidez, ikasleek Industria Antolakuntzako Ingeniaritzaren gradua lortuko dute. Hauetako ikasketa horren helburuak: industria eta zerbitzu jarduera lehiakor eta iraunkorrak garatzea, produktuen, zerbitzuen eta teknologia prozesuen nahiz antolakuntza ereduak hobekuntza eta berrikuntza sustatzea, eta lan-taldeak gidatu eta erabakiak hartzea ikuspegi orokorra eta estrategikoa erabilta.



Ingeniaritza teknikoentzako egokitze kurtsoak

